

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Jendaurrean jartzea Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zanbranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2023ko lehen seihi-lekoko tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta ordainagiriak borondatez ordaintzeko epea hastea

Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zanbranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2023ko lehen seihi-lekoko tasa ordaindu behar dutenen errolda osatu da, eta 2023ko martxoaren 10eko ebazpen baten bidez onetsi. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Añanako Kuadrillaren egoitzan (Foruen plaza 11 – 01213 Ribabellosa - Araba) aztertu ahal izango dute espedientea, 09:00etatik 13:00etara.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzean, huraosatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikularen 3. apartatuan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete esleitu zaizkien kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak kuadrillaren lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik zehaztutako epeetan.

Borondatezko epean kobratzeko aldia 2023ko apirilaren 14an hasi eta ekainaren 15ean bukatuko da, egun bi horiek barne direla. Helbideratutako ordainagiriak 2023ko maiatzaren 3an kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Añanako Kuadrillak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo dute udal bulegoek.

Borondatezko epean ordainketarik egiten ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ribabellosa, 2023ko martxoaren 10a

Lehendakaria

JAVIER URIARTE JAIRO